



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 14a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea aldatzekoa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Institutuaren Fundazioa kultura-politikarako oinarrizko tresna gisa manten dezan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Programa Primeros Días" delakoa bultza dezan, familia gurasobakarrei, ugariei, erditze anizkoitza izan dutenei edo ezgaitasuna duten kideak dituztenei laguntzeko. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga-erreforma integralaren proiektuan hainbat neurri sar ditzan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Madrilgo Erkidegoko lehendakariak *Club Siglo XXI* delakoan egindako proposamena. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen haur eskoletan azter dadin zein den hizkuntza eskaera. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Foruaren Hobekuntza eta Hitzarmen Ekonomikoa babesten baititu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2014-2015 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (10. or.).

- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa publikoa mantentzeari dagokionez Osasun Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 2012-2013 ikasturteko eskola garraiorako aurrekontuan jarritako diru-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Foru parlamentari Santos Cerdán León jauna Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legearen bidez Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearen zenbait artikulua aldatu ziren. Besteak beste, 51. artikulua, ehiza-barrutien zaintzari buruzkoa.

Aldaketa horrek ziurgabetasun-egoera sortu du Nafarroako ehiztarien artean, artikulua horren interpretazioari buruzko zalantza adierazi baitute, bai eta horren aplikazioaren ondorioei buruzkoa ere.

Hartara, 51. artikulua testua egokitu beharra dago, halako moduan non argiago eta beharrezko hobeki doituz jasoko baita zein kasutan den beharrezkoa ehiza-zaintzako sistema bat edukitzea barrutietan.

Bestalde, bi akats detektatu dira ehizari buruzko araudiaren gaurkotze horretan.

Alde batetik, 20. artikuluko 2. idatz-zatiko e) letra kentzean kendu egin zen barrutiari behar adinako zaintza emateko arduraduna nor zen adierazten zuen puntua. Gabezia hori zuzendu beharra dago.

Eta, bestalde, 21. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzean, hutsegitez ezabatu zen ondoko betebeharrak: "epizootia izan litekeen gaitzen bat agertuz gero Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua jakinaren gainean jartzea, bai eta barrutietan pozoitzerik izan bada edo debekatutako tresnarik erabili bada". Betebeharrak hori mantendu beharra dago.

Artikulu bakarra. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea aldatu eta honela geldituko da:

Bat. 20. artikulua 2. idatz-zatiari e) letra gehitzen zaio. Honela geldituko da:

"e) Zaintza-sistema bat ematea barrutiari, foru lege honetako 51. artikuluan aurreikusitako jarduketak egiteko".

Bi. 21. artikulua 1. idatz-zatiko b) letra aldatzen da. Honela geldituko da:

"b) Aurreko artikuluko lehen idatz-zatiko a), b) eta e) letretan eta artikuluko bigarren idatz-zatiko a), c) eta h) letretan xedatutakoa betetzea, aprobetxamenduaren adjudikazioan ezartzen diren arau eta baldintzen arabera".

Hiru. 51. artikulua aldatzen da. Honela geldituko da:

"51. artikulua. Zaintza.

Edonola ere, barrutiak ehiza-zaintzako sistema bat eduki beharko du ondoko jarduerak egin ahal izateko:

a) Populazioak maneiatzea, eta horren barruan sartuko dira askatzeak, birpopulatzeak eta translokazioak. Edonola ere, ehiza espezieen birpopulazio bat baimendu denean, eta espezie horiek ehizatzea debeku den denboran, eta barrutiak bestelako espezieak ehizatzeko aukera ematen duenean.

b) Oreinak zelatan ehizatzea.

c) Monteriak.

d) Populazioen urtealdi-kontrolak.

e) Kudeaketa okerrarengatik edo pozoia eta amu pozoituak jartzeagatik edo lege indardunek debekatzen dituzten gai toxikoak erabiltzeagatik barrutia osorik edo zati batean itxi denean, administrazio edo zigor espediente bat edo kautelazko neurri bat betetzeko. Kasu honetan, ehizazaina barrutian egonen da, bertan egiten den lehenengo ehiza-denboraldi gauzatua bukatu arte."

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Institutuaren Fundazioa kultura-politikarako oinarrizko tresna gisa manten dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Institutuaren Fundazioa kultura-politikarako oinarrizko tresna gisa manten dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak iragarri du, Administra-zioa "argaldu" eta kostuak aurreztu beharra argudiatuta, IAZNI-Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua Fundazioa desagertuko dela.

Fundazioa eratzerakoan adostasuna egon baldin bazen, orain ere badago, agindu zitzaizkion eginkizunak arretaz eta eraginkortasunez garatuz

bere lanak izandako emaitzak balioesteko orduan. Hortaz, balantzea zalantzarik gabe positiboa da. Aldi berean, eginkizun horiek berealdiko garrantzia dute Nafarroarentzat, bai ikuspuntu hertsiki kulturaletik, bai ekonomikotik.

Halatan, IAZNIren egiturari sartzeko da Navarra Film Commission izeneko, emaitza bikainak izan dituen krisi ekonomikoa gorabehera. Halaber, munta handiko kultur-ekintzak kudeatu ditu; esate baterako, Punto de Vista zinemaldia, bere espezialitatean erreferentziako ekitaldi bihurtzeraino. IAZNIren jardueraren beste alderdi azpimarragarri bat da Filmotekaren kudeaketa, bi alde dituen: Nafarroako ondare zinematografikoa ikertu, berreskuratu eta kudeatzea, eta kultura zinematografikoa zabaltzea.

Nafarroako Gobernuak planteatzen du IAZNIren jarduerari NICDO, S.A.ren Liburutegi Nagusiaren eta Kultura Departamentuaren beraren ardura-ean uztea. Hori horrela balitz, fundazioak sortutako sinergiak galduko liriteke, eta ez da sinesgarria horrela kostuak aurreztuko liritekeenik. Eta aurrezte baldin bada lehentasuna, hori soilik lor daiteke jarduerak kenduta, kulturaren eta ekonomiaren arloan horrek izanen lukeen kostuarekin.

Nafarroako Gobernuaren azalpenetatik ondorioztatu daiteke ez dela azterlanik egin IAZNIren jardueraren errentagarritasun sozioekonomikoari buruz, ez eta jarduerari hori beste bitarteko batzuekin egitearen kostuei eta onurei buruz ere. Horrenbestez, uste dugu IAZNI desagertzearekin ez direla inolaz ere lortuko Nafarroako Gobernuak dituen helburuak; aitzitik, baliabideak xahutze ikaragarria ekarriko du.

Ondorioz, behean sinatzen duten taldeek honako erabaki proposamena aurkezten dute Osoko Bilkuran:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados IAZNI Fundazioa kentzearekin, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du fundazioa mantentzean, kultur arloko politikarako eta kulturaren industriarako baliabideak sortzeko oinarritzeko tresna den aldetik.

2. Betiere, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du IAZNIri egun agindutako jarduerak mantentzea ziurta dezan eta horretarako beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide material guztiak eman diezazkion.

Iruñean, 2014ko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Programa Primeros Días" delakoa bultzatzean, familia gurasobakarrei, ugariei, erditze anizkoitzea izan dutenei edo ezgaitasuna duten kideak dituztenei laguntzeko.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita "Programa Primeros Días" delakoa bultzatzean, familia gurasobakarrei, ugariei, erditze anizkoitzea izan dutenei edo ezgaitasuna duten kideak dituztenei laguntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Programa Primeros Días" izenekoa bultzatzean, familia gurasobakarrei, ugariei,

erditze anizkoitzea izan dutenei edo ezgaitasuna duten kideak dituztenei laguntzeko.

Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, Nafarroan % 11 jaitsi da jaiotze-tasa; hartara, jaitsiera handieneko bigarren erkidegoa izan da. Espainiako batez bestekoa % 6koa izan zen. Ez baldin badugu nahi Nafarroa erkidego zahartua bilakatzea, premiazkoa da neurriak hartzea jaiotze-tasaren jaitsiera hori moteltzeko, joera negatiboa baitu 2008tik aitzina.

Administrazio publikoek har ditzaketen eta hartu behar dituzten neurrien artean daude familia eta lana bateragarri egitearen gainekoak, bai eta familia ugariak, gurasobakarrak, edo ezgaitasuna duten haurrak dituztenak –bereziki errenta apalena dituztenak–, babesteko neurriak ere.

Ez dugu ahantzi behar 2014 honetan Nazio Batuen Familia Foroaren XX. urteurrena betetzen dela, eta Parlamentu honek erabaki bat onetsi zuela urtarrilean, Gobernua premiatzen zuena familiari laguntzeko neurriak bultzatzean. Halatan, Gizarte Politiketako Departamentua Familiari Laguntzeko II. Plana (2014-2018) ari da prestatzen.

Hori guztia kontuan hartuta, uste dugu bereziki kontuan hartu beharreko programa dela "Primeros Días" izenekoa, haurra jaio osteko lau hilabeteetan familiari etxeko laguntzaile batek laguntzean datzana, familia-egoera berriari egokitzea errazte aldera.

Nafarroako Gobernuak laguntzaile bat kontratatuko luke –famiariaren beharriaren eta ordutegiaren arabera, 20 ordutik 100 ordura bitarte– etxeko zenbait lanez arduratzeko; besteak beste, haurrak zaintzea, etxeko lanak egitea, edo amagandiko edoskitzeari buruz aholku ematea lehendabiziko haurra izan duten amei.

Laguntza hori familia gurasobakarrei, ugariei, erditze anizkoitza izan dutenei edo ezgaitasuna duten kideak dituzten familiei zuzendurik egonen litzateke, eta errenta-irizpideak erabiliko lirateke, familientzako beste babes-neurri batzuetan bezala (eszedentziarako laguntzak edo aparteko gastuetarako laguntzak; esate baterako, entzuteko proteziak eta ikusmen edo ortopedia arloko preskripzioak).

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Politiketako Departamentuaren bidez eta prestatze-prozesuan den Familiari Laguntzeko II. Planaren barruan bultzatzen "Primeros Días" izeneko programa, haur bat edo bat baino gehiago jaio ondoko lau hilabeteetan etxeko laguntzaile bat kontratatzearen bidez laguntza pertsonala ematean datzana.

Programa hori familia gurasobakarrei, ugariei, erditze anizkoitza izan dutenei edo ezgaitasuna duten kideak dituztenei zuzendurik egonen da, eta errenta-irizpideak erabiliko ditu, familientzako beste babes-neurri batzuetan bezala

Iruñean, 2014ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga-erreforma integralaren proiektuan hainbat neurri sar ditzan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zerga-erreforma integralaren proiektuan hainbat neurri sar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernua premiatzen duena zerga-errefor-

ma integralaren proiektuan hainbat neurri sar ditzan, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak iragan abuztuan iragarri zuen zerga-erreforma integral bat egiteko asmoa zuela. Azken asteotan asmo hori errepikatu izan da, eta Parlamentu honetan ere behin baino gehiagotan adierazi izan da.

Halatan, Nafarroako Gobernuak zerga-erreforma horren ildo nagusiak azaldu ditu, esanez erreformak onura fiskalen, PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren berrikusketa sakona ekarri beharko lukeela.

Gobernua konprometitu da zerga-erreforma hori Parlamentuan 2014ko ekainean aurkeztera. Halatan, Nafarroako Gobernuak parte-hartze prozesu bat abiarazi du herritarren proposamenak jasotzeko –martxoaren 21ean bukatuko da–, eta aldi berean hainbat bilera egin ditu ukitutako zenbait kolektiborekin.

Nafarroako Parlamentuak, Foruaren Hobekuntzak jasotzen duen moduan, Nafarroako Gobernuaren jardura bultzatzeko eginkizuna du, besteak beste. Zerga-sistemaren erreformak garrantzi handia dauka une honetan, ekonomia suspertzen

laguntzeko eta gizarte-kohesio handiagoa lortzeko eta krisiak Nafarroako etxeetan eragin dituen ondorioak epe labur eta ertainera zuzentzeko.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du zenbait neurri jaso ditzan zerga-erreforma integralaren proiektuan:

1.- PFEZaren aitortpenetik salbuestea 14.000 euro baino gutxiagoko lansaria duten zergadunak.

2.- Zerga kenkariak hobetzea familiei, seme-alabengatiko eta aurreko ahaideengatiko gutxieneko pertsonalak igoz, bai eta krisiak larri kalte-tutako beste kolektibo batzuei eta eskueran baliabide gutxiago dituzten beste batzuei ere, gizarte koehesioaren mesedetan.

3.- Kenkariak hezkuntza-gastuengatik.

4.- Kenkariak 35 urtetik beherako gazteentzat, etxebizitza alokatzeagatik.

5.- Kenkaria gazteentzat, ohiko etxebizitza berriztatu edo zaharberritzeagatik.

6.- Salbuetsitako gutxienekoa –311.023 euro– 700.000 eurora igotzea, eta ondarearen gaineko zerga arian-arian kentzeko aukera aztertzea.

7.- Aurrezpena sustatzea, kapital-errendimenduen zerga-ordainketa murriztearen bidez.

8.- Landa ingurunean bigarren etxebizitza eros-
tegatiko edo zaharberritzeagatik kenkaria.

Iruñean, 2014ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Madrilgo Erkidegoko lehendakariak *Club Siglo XXI* delakoan egindako proposamena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Gaitzetsi egiten du Madrilgo Erkidegoko lehendakari Ignacio González jaunak *Club Siglo XXI* delakoan aurtengo martxoaren 3an egindako proposamena, politikoki errespetugabea izateagatik Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren eskubide ekonomiko eta fiskalekin, eta zorroz-

tasunik eta seriotasunik gabea izateagatik alderdi ekonomiko eta sozialean.

2. Adierazten du beharrezkoa dela, beren defentsa eta garapen eraginkorrerako, Europak onar ditzan Nafarroaren ekonomia eta zerga arloko jatorrizko eskubide historikoak, ECOFINen nahiz Europar Batasuneko gainontzeko ekonomia-, finantza- eta zerga-erakundeetan egoteko duen eskubidea aitortuz”.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen haur eskoletan azter dadin zein den hizkuntza eskaera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Haur Eskoletan azter dadin zein den gurasoen hizkuntza eskaera; esate baterako, Iruñeko Alde Zaharreko Haur Eskolan. Alegia, azter dadin zein den Haur Eskolaren zerbitzuari dagokionez Alde Zaharreko gurasoen artean –Haur Eskolan eskolatzeko adina duten seme-ala-

bak dituztenen artean– egiten den hizkuntza eskaera.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Iruñeko Alde Zaharreko Haur Eskolak, zeina Nafarroako Gobernuaren eskumenekoa baita, gurasoen eskaerara egokitu behar duela bere zerbitzua, hizkuntza eskaintzari dagokionez, eta baliabideak jarri behar direla hala eskatzen dutenei zerbitzua eskaraz emateko".

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Foruaren Hobekuntza eta Hitzarmen Ekonomikoa babesten baititu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak bere egungo eta etorkizuneko konpromisoa adierazten du Foruaren Hobekuntzaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren

indarraldiarekin eta zilegitasunarekin, Konstituzioaren babesa eta errespetua dituen Nafarroaren autogobernuaren adierazpide diren aldetik".

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2014-2015 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa.**AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2014-2015 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz

Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Foru Komunitateko ikastetxeetan 2014-2015 ikasturteko Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikula egiteko kanpaina bukatuta, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbat hurrek ez dute ikaspostua lortu lehen aukera gisa hautatu duten ikastetxe publiko edo itunpekoan, Haur Hezkuntzako lehen mailan?

– Zenbat hurrek ez dute ikaspostua lortu bigarren aukera gisa hautatu duten ikastetxe publiko edo itunpekoan, Haur Hezkuntzako lehen mailan?

– Zenbat hurrek ez dute ikaspostua lortu hirugarren aukera gisa hautatu duten ikastetxe publiko edo itunpekoan, Haur Hezkuntzako lehen mailan?

Iruñean, 2014ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Nafarroako Ospitalegunean garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa publikoa mantentzeari dagokionez Osasun Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Ospitalegunean garbiketa-zerbitzuaren kudeaketa publikoa mantentzeari dagokionez Osasun Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 14ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera hau egin du: "Osasun Departamentuak zer aurreikusten du garbiketa-zerbitzu horren kudeaketa publikoa mantentzeari dagokionez? Zein izanen da egungo langileen egoera –funtzionarioena nahiz kontratadunena– etorkizun hurbilean?" (PES-00034). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Gaur egun gure langileek egiten dute garbiketa NOG-Aren zati batean (A, B, F, H, L, N. Rx pabi-

loiak) eta ez daukagu aurreikusita garbiketa-zerbitzuaren egoera aldatzea.

C pabiloi eta Larrialdietako pabiloi berrien garbiketa duela urtebete esleitu zen, gaur egun indarrean dagoen kontratuaren lehiaketarako deialdia egin zenean.

NOG-A ospitalearen gainerakoa ez da aldatu eta gure langileek jarraituko dute hura garbitzen. Plantillan egokitzapenak eginen dira langileak lekualdatu ahala. Adibidez, oraingo larrialdiak hustu eginen dira aldi baterako, eta zerbitzua egiten duten langileak kenduko dira aldi baterako. Aurreikusita dago alde horretan kokatzea Hematologiako eguneko ospitalea, eta bertara aldatzen direnean berriro kontratatuko dira langileak alde hori garbitzeko. Pabiloien unean uneko okupazioak eragindako mugimenduak dira, orain arte bezala.

Hori guztia gertatu ahala behin-behineko kontratuak amaituko dira edo langile gehiago kontratatuko dira, pabiloien okupazioaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, 2012-2013 ikasturteko eskola garraiorako aurrekontuan jarritako diru-kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, 2012-2013 ikasturteko eskola garraiorako aurrekontuan jarritako diru-kopuruari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, zeinean eskatu baitu "2012-2013 ikasturtean eskola garraiorako aurrekontuan zegoen kopuruaren desglosea: "410004-Servicios complementarios" proiektuan ageri den "Transporte Escolar". Zein ikastetxetako zein ikasleri, zenbat diru esleitu zaie garraio kontzeptuan?" (8-14/PES-00003). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

"Eskola garraioa" kontusaila zerbitzu horren onuradun diren ikasleen eskola garraioaren antolaketa eta funtzionamendu gastuei aurre egiteko da.

Zerbitzua ez da ematen ikasleei diru kopuruak esleitzuz, baizik eta eskola garraio kolektiboa antolatuz, kudeatuz eta finantzatuz, edo, hala behar denean, ikastetxeei diru kopuruak esleitzuz, familiek egindako gastuak konpentsa ditzaten garraiorako banakako laguntza deitutakoen bidez.

Eskola garraio kolektiboa Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritako prozedurei jarraituz kontratatzen da, eta baldintza teknikoetan zehazten dira ibilbideak, ibilgailuen edukiera eta ezaugarriak, zaintzaileen ingurukoak eta abarreko betekizunak. Zerbitzuaren adjudikazioa duten enpresetako bakoitzari zuzenean ordaintzen zaio, zerbitzua egin duela egiaztatu ondoren.

Distantziak, trazadurak, ibilbideen egokitasuna, ikasle kopurua edota ikastetxeen ordutegiaren koordinazioa direla eta, batzuetan ezin da eskola

garraio kolektiborik antolatu. Halakoetan banakako laguntzak ematen dira ikasleen garraiorako, betiere ikasleak zerbitzu horren onuradunak badira - txosten honetako lehen lerroaldean adierazitakoaren arabera. Halakoetan ikastetxeak esleitzen eta ordaintzen ditu diru kopuruak.

Hona hemen 2012-2013 ikasturtean zenbat diru esleitu zaion garraio modalitate bakoitzari:

Eskola garraio kolektiboa: 12.132.677,65

Garraiorako banakako laguntzak: 1.286.553,70

Garraiatutako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxe publikoen zerrenda erantsi da.

Eranskina	
Eskola garraioa duten ikastetxe publikoak 2012-2013 ikasturtea	
Ikastetxeak	Herria
HLHIP	Almandoz
Zelandi IP	Altsasu
Aralarko Mikel Donea BHI	Altsasu
Ezkaba IP	Antsoain
San Migel IP / DBHI	Agoitz
HLHIP	Areso
HLHIP	Arizkun
Ikastetxe Publikoa	Arraioz
Ikastetxe Publikoa	Aurizberri
HLHIP	Azpilkueta
Martin de Azpilicueta HLHIP	Barasoain
Toki Ona BHI	Bera
Ricardo Baroja IP	Bera
HLHIP	Beriain
HLHIP	Beriain
Mendialdea IP	Berriozar
Berriozarko DBHI	Berriozar
Araxes IP	Betelu
Askatasuna BHI	Burlata
Ibaialde BHI	Burlata
Ermitaberri HLHIP	Burlata
Virgen de la Oliva HLHIP	Zarrakaztelu
DBHI	Zarrakaztelu
Vicenta Maria IP	Cascante
José Luis Arrese HLHIP	Corella

<u>Ikastetxeak</u>	<u>Herria</u>	<u>Ikastetxeak</u>	<u>Herria</u>
Alhama BHI	Corella	HLHIP	Ornoz
ARTE ESKOLA	Corella	María Ana Sanz BHI	Iruñea
Cerro de la Cruz HLHIP	Cortes	García Galdeano IP	Iruña
Bardenas Reales DBHI	Cortes	Sanduzelai IP	Iruña
Ikastetxe Publikoa	Doneztebe	Vázquez de Mella IP	Iruña
Mendaur DBHI	Doneztebe	Azpilagaña IP	Iruña
San Francisco Javier IP	Elizondo	Mendigoiti eta Elorri IP	Iruña
Lekaroz-Elizondo BHI	Elizondo/ Lekaroz	Andres Muñoz Garde HBIP	Iruña
Ikastetxe Publikoa	Erratzu	Doña Mayor HLHIP	Iruña
Remontival IP	Lizarra	Amaiur Ikastola HLHIP	Iruña
Tierra Estella BHI	Lizarra	Hegoalde HLHIP	Iruña
Ikastetxe Integratu Politeknikoa	Lizarra	Mendigoiti HLHIP	Iruña
HLHIP	Etxalar	Patxi Larraintzar HLHIP	Iruña
San Donato IP	Etxarri Aranatz	Andrés Muñoz Garde HBIP	Iruña
Orreagako Ama IP / DBHI	Garralda	El Lago HLHIP	Iruña
Andres Narbarte Xalto IP	Goizueta	Victor Pradera HLHIP	Iruña
Virgen Blanca IP	Uharte	Arte Eskola	Iruña
BHI	Uharte	Eunate BHI	Iruña
HLHIP	Igantzi	Julio Caro Baroja BHI	Iruña
Ikastetxe Publikoa	Irurita	Padre Moret BHI	Iruña
Atakondoa IP	Irurtzun	Pedro de Ursua BHI	Iruña
HLHIP	Ituren	Plaza de la Cruz BHI	Iruña
Oihanzabal IP	Jauntsarats	Basoko BHI	Iruña
Irurita Gotzaia IP / DBHI	Larraintzar	Biurdana BHI	Iruña
Irurita Gotzaia IP / DBHI	Larraintzar	Iturrama BHI	Iruña
Amazabal BHI	Leitza	BHI	Azkoien
Erleta Ikastetxe Publikoa	Leitza	HLHIP	Gares
Lekaroz-Elizondo BHI	Lekaroz	IP	Gares
Ibarberri IP	Lekunberri	Julián Gayarre IP / DBHI	Erronkari
Irain IP	Lesaka	Ega BHI	San Adrián
Pablo Sarasate BHI	Lodosa	Alfonso X El Sabio HLHIP	San Adrián
Santa María IP	Los Arcos	Luis Gil IP	Zangoza
San Juan HLHIP	Irunberri	Sierra de Leyre BHI	Zangoza
Sierra de Leyre BHI	Irunberri	HLHIP	Sunbilla
HLHIP	Luzaide	Marqués de la Real Defensa IP	Tafalla
San Bartolome HLHIP	Martzilla	BHI Politeknikoa	Tafalla
Marqués de Villena BHI	Martzilla	Sancho III el Mayor BHI	Tafalla
IP / DBHI	Mendabia	Valle del Ebro BHI	Tutera
San Pedro IP	Mutiloa	ETI BHI	Tutera
Elortzibar DBHI	Noain	Benjamín de Tudela BHI	Tutera
San Miguel HLHIP	Noain	Monte San Julián IP	Tutera
IP / DBHI	Otsagabia	Torre Monreal HBIP	Tutera
Domingo Bados HLHIP	Olatzagutia	San Miguel HLHIP	Uharte Arakil
Príncipe de Viana IP	Erriberri	Ricardo Campano IP	Viana
San Miguel IP	Orkoien	El Camino DBHI	Viana

<u>Ikastetxeak</u>	<u>Herria</u>
Lorenzo Goicoa IP	Atarrabia
Atargi IP	Atarrabia
Pedro de Atarrabia DBHI	Atarrabia
HLHIP	Ziga
BHI	Zizur Nagusia
Camino de Santiago IP	Zizur Nagusia
Erreniega HLHIP	Zizur Nagusia
Catalina de Foix IP	Zizur Nagusia
Xabier Zubiri IP	Zubiri
Las Amescoas IP	Zudairi
Herri Ikastetxe Bateratua	Zugarramurdi

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentari Santos Cerdán León jauna Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea.

2014ko martxoaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dunak jakinarazi du, 2014ko otsailaren 27an aurkezturiko idazki baten bidez, foru parlamentari Santos Cerdán León jauna Socialistas de Navarra

parlamentu-taldean sartu dela. Aipatu idazkia ikusita, ondokoa ERABAKI DA:

1. Adieraztea idazki horren berri baduela.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

